

Mugimendu bakezalea eta euromisilak

***Iñigo Astiz
Izaro Arroita
Naiara Manterola***

Kazetaritzan lizentziatuak

I. Sarrera

Hamaika ikuspegitatik azter litezke bakea eta bakezaletasuna. Guk lan honetan gizarte-mugimenduen ikuspegitik egingo dugu hurbilpena, eta horregatik, garrantzitsua da alor honetan bakezaletasunaz zer esan nahi den zehaztea. Mariano Agirrerren definizioa¹ gure egingo dugu horretarako.

Bakezaletasuna gizarte-mugimendu baten ideia eta jarrera multzo edo dotrina da, honako ezaugarri hauek betetzen dituena (XX. mendeko bigarren erdialdean):

- Gerrarekiko bere aurkakotasun moralak, helburu politikoak edota eztabaidak konpontzeko metodo gisa ulertuta.
- Estatuaren artean eta haien baitan bake egonkor eta etengabea ezartzeko ekintza teoriko eta praktikoa.
- Autonomia eta gobernuaren aurreko lerrotze eza, baita ekiten den herrialdeari dagokionez ere. Jarrera honek Gerra Hotzaren testuinguruan independente izatea ekarri zuen, bi bloke militarrik kritikatzeko.
- Legez kanpoko eta lege barruko metodoen erabilera helburuak lortzeko, betiere bortxazko ekintzak gaitzetsiz.

XX. mendea aipatzen du Agirrek parentesi artean. Izan ere, bakearen aldeko mugimenduak, eta bake-eskaerak, gizakia bezain zaharrak dira. XX. mendeko mugimendu bakezalea aurretik egondakoak ez bezalakoa da, baina era berean haiek izan ditu iturri, eta horregatik lanaren lehen atalean tradizio bakezaleak aztertuko ditugu. Ezagutzen diren zaharrenetatik hasita mugimendu modernoetaraino.

Prozesu horretan 50eko hamarkada hartuko dugu mugarriztat, orduantxe agertzen baitira indarrez lehen mugimendu bakezale antinuklearrak (40ko hamarkadan sortu zen bonba nuklearra). Aurrekari gisa hartuko dugu, halere, data hori, gure helburua 80ko hamarkadan izandako mugimenduak aztertzea izango baita. Bigarren atala eskainiko diogu horri, eta aurrekariak, testuingurua (Gerra Hotza) eta 80ko hamarkadako mugimenduaren berezitasunak, mugimendu berri deituekin konparatuz, aztertuko ditugu horretarako.

80ko hamarkadako mugimendua aurrekoen (50eko, 60ko, eta 70eko hamarkadak) jarraipena den edo mugimendu berria den aztertuko dugu, lehenik. Bestetik, hamarkada horretan izandako mugimenduak ikusiko ditugu, betiere Gerra Hotzaren testuinguruak eragin handia izan zuela gogoan hartuz. Mugimendu askotarikoa izan zen bakezalea, eta hori izango da aztertuko dugun hurrengo puntua, mugimendu anitz egon ziren, edo, bestela, mugimendu bakarra baina askotarikoa kontsidera daitekeen zehazteko. Azkenik, 80ko hamarkadako bakezaletasuna gizarte-mugimendu berrien teoriatik ikusiko dugu, haren funtzionamendua, baliabideak, agerpena... aztertuz.

Mugimendu hauen eragina aztertzeari eskainiko diogu hirugarren atala, jakinik helburu zehatzetan (*euromisilak* deituak jar zitezten eragozte) huts egin zutela, eta 90eko hamarkadan krisi-egoeran sartu zirela, eta, noski, ez dutela lortu beste hainbat

¹ AGIRRE, M., "Pacifismo", in Mardones, J. M. (zuz.), *10 Palabras clave sobre movimientos sociales*, Verbo Divino, 1996.

eta hainbat gerra geldiaraztea. Mugimenduaren kolpearen ondoren izan den oihartzuna aztertuko dugu, beraz, baina ez helburu zehatzei soilik erreparatuz. baizik eta ikuspegi zabalagoa emanez. Zentzu horretan, mugimendu bakezaleek bi blokeen arteko distantzia txikitzen eta haien artean zen harresia arrailtzen egin zuten lana izango dugu aipagai.

Ondorioei eskainiko diegu azken atala, hau da, puntu horretara heldu arteko bide guztiari begirada bat emango diogu gainetik lanaren puntu nagusia argitzeko. Zer berezitasun ditu bake-mugimenduak gizarte-mugimenduen artean?

2. Mugimendu bakezalearen aurrekari historikoak

Gizakiak indarkeria eta gerra erabili izan ditu gizaki denetik. Baina mugimendu bakezaleetan aditu den Nigel Youngek dioenez, bakearen ideia ere gizateria bezain zaharra da. Bakearen ideia eta bakezaletasuna antzinatek egon izan dira beraz, baina ez mugimendu bakezaleak. Elkarte bakezaleak azken bi mendeotako kontua dira.

Dena dela, kontuan izan behar da historian bakezaletasuna ez dela homogeneoa, jarraitua eta bateratua izan. Gerra ezberdinak egon diren bezala, bakezaletasun ezberdinak sortu izan dira, eta motibazio, helburu, eta metodo ezberdinak izan dituzte.

Batzuek bakezaletasun absolutua defendatu izan dute, hainbat talde erlijiosok, esaterako: menonitek, kuakeroek... Uste zuten erasotzaileek jarrera baketsua hartuko zutela eredu solidarioa, inolako indarkeriarik gabekoa, ematen bazitzaien. Jarrera hau agertzen da *Testamentu Berriko* Mendiko sermoian ere. Hala esan omen zuen Jesukristok: «Zoriontsuak bakearen alde lan egiten dutenak, eurak izango direlako Jaunaren semeak».

Hala ere, kristautasuna baino zaharragoa da bakezaletasun absolutua; Budaren, Confuncioren edota Ekialdeko beste zenbait filosofoen irakaspenetan ere agertzen da jarrera hori. Bakezaletasun absolutuaren jarraitzaileek defendatzen dute ausardia moralari eutsiko diotela eraso edo probokazio baten aurrean, eta erasotzaileengan eragingo dutela, gaizkiaren truke ongia itzultzeagatik. Hala ere, jarrera horrek ez du inoiz guztizko arrakastarik lortu. Kristauek jarrera hori izan zuten hasieran, baina indarkeria erabiltzearen aurkakotasuna ahuldu egin zen Eliza Estatu Erromatarrarekin aliatu zenean, IV. mendean.

Beste bakezale batzuk ez dira hain absolutuak izan. Batzuek indarkeriari uko egin izan diote, eta pertsuasio morala bultzatu izan dute, baina baita helburuak lortzeko erresistentzia pasiboa ere. Horren adibide dira Indian XX. mendean gobernu britainiarraren aurka egindako erresistentzia eta AEBko desobediencia zibila eskubide zibilen alde.

Bakezale askok uste izan dute bakea izateko beharrezkoa dela egoera batzuetan indarkeria erabiltzea, defentsarako, adibidez. Beraz, ikusmolde hau duten batzuek onartzen dute defentsa armatua egitea eraso baten aurrean, baina ez eraso dituzten beste herrialde batzuei laguntzea.

Segurtasun kolektiboaren teoriak, berriz, nazio bakezaleen aliantza proposatzen du. Horretarako, nazioarteko tresnak behar dira, arbitratzeko eta erabakiak inposatzeko. Teoria honen aldekoak nazioarteko erakundeen alde agertu izan dira, beraz; Arbitratzeko Auzitegi Iraunkorraren, Nazioen Elkartearen eta Nazio Batuen Erakundearen alde, esaterako.

Bakea eta bakezaletasuna ulertzeko modu batzuk egon dira, beraz, historian zehar. Gerra saihesteko bideen bilaketa Erdi Aroaren amaieran hasi zen, hiri-estatuaren gorakadarekin. Eta XVII. eta XVIII. mendeetan ere hainbat pentsalari erlijioso eta filosofo bake iraunkorrerako bidea definitzen saiatu ziren: William Penn, Jacques Henri Bernardin de Saint-Pierre, Jean-Jacques Rousseau, eta Immanuel Kant, besteak beste.

XIX. mendean sortu ziren lehen elkarte bakezaleak. Historiako lehen elkarte bakezalea David Low Dodge merkataria amerikarrak New Yorken sortu zuen 1815ean. XIX. mendeak aurrera egin ahala, zenbait elkarte bakezale sortu ziren Ameriketara zein Europan, Bakearen Aldeko Elkarte Amerikarra eta Anaitasun Unibertsalaren Elkarteak, esate baterako. Dena dela, lehen talde hauek idealistak ziren eta ez zuten plan zehatzik egin gerra saihesteko.

Historian zehar bakearen aldeko hainbat jarrera izan direla ikusi dugu. Baina mugimendu bakezale garaikideen aurrekari izan diren tradizio bakezaleak aztertuko ditugu orain. Horretarako, *Approaches to Peace* liburuan² Nigel Young-ek egin duen sailkapenean oinarrituko gara.

Tradizio erlijiosoak

Tradizio bakezale erlijiosoan garrantzi berezia izan dute kuakeroek, "Lagunen Elkarteak". Komunitate kristau protestantea da, XVII. mendean Britainia Handian sortua. Kuakeroak gerraren aurka daude, baita jasotako erasoei bortxaz erantzutearen aurka ere. Ez dira asko, baina pisu handia izan dute, eta, bakezaletasunari dagokionez, eragin handia izan dute 300 urtez ingelesez hitz egiten duten herrietan. Hauexek lirake kuakeroen bakezaletasunak biltzen dituen ezaugarri nagusiak: gerraren aurka egitea eta zerbitzu militarra ez egitea; sinestea gerra deuseztatzeko bidea dela indarkeriarik eta armarik gabeko erlazioak izatea pertsonen eta taldeen artean; unibertsalismoaren nozio erlijiosoak, pertsonen batasuna Jainkoaren menpean (beraz, gerraren kritika morala egiten dute, espeziearen aurkako krimen kolektiboa dela argudiatuta); sinestea beharrezkoa dela aldaketa soziala eta estrukturala. Bakea, justizia eta errukia lotuta daude, eta mundu edo gizarte desorekatu batek indarkeria eta heriotza dakar. Kuakeroen iritziz, aldaketa posible da indibiduoarengan eta komunitatearengan.

Bake Unibertsal Iraunkorra Sustatzeko Elkarteak sortu zuten kuakeroek, eta Bakearen Nobel saria jaso zuen 1947an haien nazioarteko sorospenerako batzarrak.

Liberalismoa eta internazionalismoa: erreformarako proposamenak.

John Stuart Mill-ek esan zuenez, merkatu librearen gerra zaharkitua uzten ari zen. Areago, Richard Cobden pentsalari ingelesak azpimarratu zuen bakea merkatu

² YOUNG, N, "Peace Movements in History", in BARASH, D. (ed), 2000.

Approaches to Peace, Oxford,

librearen ezaugarri baino, helburua izan behar zela. Ikuspuntu horren arabera, oso bakanak izango ziren estatuen arteko gatazkak, eta nahikoa izango litzateke arbitraje-sistema bat haiek konpontzeko. Baina, XIX. mendeak aurrera egin ahala, argi ikusi zen merkatu libreak ez zuela bakea ekartzen, eta nazioarteko erakundeen beharra ikusi zuten. Gerra saihestu nahi zuten estatuen jokabidearen erreformaren bidez; bake-planak, itunak, proposamenak, negoziazioak, nazioarteko legeak, taldeen arbitrajea...

XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, Europan bakea bermatzeko nazioarteko mekanismoak sortzearen edota herrien federazio baten aldeko jarrera zegoen. 1863an sortutako Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeak gerra-garaian gizabidezko jarrera bat mantentzearen aldeko kanpaina egin zuen, eta horrek bide eman zien Genevako konbentzioei, eta Hagako batzarrei. Ildo horretan, Batasun Interparlamentarioa sortu zuten 1892an.

Liberal internazionalisten ametsa zailtzen zuten I. Mundu Gerra aurreko aldaketa geopolitikoek. Frantziako eta Ameriketako iraultzen ondoren, Europan nazio-estatuak ugaritu ziren, eta armada handiak zituzten, base industrialak militarismorako eta inperioa zabaltzeko... Bakearen aldeko mugimenduen inguruan eztabaida garrantzitsua izan zuten liberal librekanbistek eta sozialistek; batzuek defendatzen zuten kapitalismoak gerrarik gabeko mundua ekarriko zuela eta besteek kapitalismoak estatu militarizatu eta zentralizatuak sortuko zituela, suntsitzeko ahalmen handia izango zuten estatuak.

Zerbitzu militarri eta gerrari erresistentzia

Hirugarren tradizio garrantzitsuena da. Eskubide zibilekin eta norbanakoaren askatasunarekin lotu izan da. Baina horrekin bat egin zuten zenbait talde erlijiosok (kuakeroek, esaterako) edota gerraren aurkako sozialistek.

Dena dela, kontuan izan behar da 1793an Frantzian zerbitzu militar modernoak hasi aurretik ere, zenbait herritan gerraren eta zerbitzu militarren aurka agertu zirela pertsona txiroak eta analfabetoak: kultura gutxiko nekazari eta artisauak, jazarpena jasan zuten sekta eta komunitate erlijiosoak, etorkinak...

Sozialismoa. Militarismoa eta antimilitarismoa

Gerra injustizia ekonomikoekin eta errepresio politikoarekin zegoen lotuta hasierako sozialista batzuentzat, elite estu baten berekoikeriarekin eta aginteko talde indartsuekin, chauvinismo nazional, inperial eta arrazialarekin... Sozialismoa zatituta egon zen tradizio militaristaren eta antimilitaristaren artean. Izan ere, marxistek eta marxista ez zirenek eztabaida zuten nazio-estatuak sozialismorako aldaketan jokatu beharreko rola inguruan, indarkeria iraultzailearen inguruan, sozialistek gobernu kapitalistetan parte hartzea komeni zen ala ez...

Gerraren aurka zeuden sozialistek kontra egiten zuten gobernu militaristei zegokienez, baita zerbitzu militarri eta gerrarako prestakuntzari zegokienez ere, kapitalismoaren eta inperialismoaren ezaugarri izateagatik. Europako milioika langilek elkartuta, gerraren aurka egin zezaketen, muga nazionaleraino harago. Eta militarrek, enperadoreek, tsarrek eta kapitalistek babestutako gobernuak ezingo zuketuen ezer egin.

Sozialisten tradizio militaristen eta antimilitaristen arteko eztabaidan, ordea, militaristak nagusitu ziren azkenerako. Horretan eragin handia izan zuten I. Mundu Gerrak eta Errusiako Iraultza defendatzeko beharrak. 1914an alderdi sozialistek nazioaren batasunerako deia egin zuten bata bestearen atzetik, eta gutxiengo sozialista internazionalista antimilitarista bat bakarrik agertu zen aurka. Tradizio iraultzailea militarizatu zen, eta estatuan eta nazioan zentratu zen.

Mundu Gerrak

I eta II. Mundu Gerrek eragin handia izan zuten bakearen aldeko mugimendu haietan. Kuakero askok eta Elkarte Fabiarreko sozialistek zerbitzu militarari uko egin zioten, euren ideiei eustearren. Gerra amaitu zen urtean, Andrew Carnegiek Nazioarteko Bakearen Fundazioa sortu zuen, eta 1919an Nazioen Elkarte sortu zen, bakea eta segurtasun kolektiboa bilatzeko lehen nazioarteko erakundea. Izan ere, bakezale batzuek ziotenez, garai hartan bakearen oztopo nagusia zen nazioen mugarik gabeko subiranotasuna. Nazioen Elkarteak estatuen eta gobernuen konpromiso bat eskatzen zuen. Eta bi Mundu Gerren arteko epean gerra-garairako lege berriak egin zituen, batez ere 1925eko Genevako Protokoloarekin, arma kimiko eta biologikoen inguruan. Arma-saltzaileen inguruan ere jardun zuten, eta gobernu askok onartu zituzten armen salerosketa kontrolatzeko sistemak.

Azpimarratzekoa da, ordea, II. Mundu Gerran aldaketa izan zela bakezale batzuen artean. Izan ere, "gerra justu"-aren ideia zabaldu zen. Nazismoaren eta faxismoaren itzalak askatasun ororen galera esan nahi zuen, eta beraz, askorentzat okerragoa zen gerra bera baino. Nolabait esateko, I. Mundu Gerra estatuen artekoa izan zen gehiago, eta bigarrenean borroka justifikatua ikusi zuen jendeak. Ondorioz, arma nuklearren aurkako erreakzioa beranta izan zela dio Nigel Youngek. II. Mundu Gerra amaitzean, beste saiakera bat egin zen Nazio Batuen Erakundearekin, Nazioen Elkartearen ildotik. Baina Gerra Hotzaren hasierarekin bakearen esperantza zapuztu zen. Bonba atomikoak jendea beldurtu zuen, eta pixkanaka, Gerra Hotza berotzen zen heinean, mugimendu bakezalea suspertzen hasi zen.

3. Mugimenduaren booma, 80ko hamarkada

Testuinguru historikoa; Gerra Hotza

Bigarren Mundu Gerraren amaierak piztutako baikortasuna eta Nazio Batuen sorrera laster ahaztu ziren mundua bi bloke antagonikotan zatitzearen ondorioz; blokeok, hamarkadetan zehar, gero eta armategi nuklear hornituagoen arriskuak areagotutako liskar gogorrari eutsi zioten.

Gerra Hotza mundu-gatazka amaitzearekin batera hasi zen, oraindik bakehitzarmenak hizketa-gai zirenean. Mundu Gerran garaile irtendako aliatuen arteko zatiketaren arrazoiak era askotakoak izan ziren. Irizpide orokorrak aipatuko ditugu hemen, gerra horren nondik norakoak aski ezagunak direlako.

Ikuskera politiko ezberdinak: alde batetik, kapitalismo demokratikoa, Estatu Batuak buru zirela; bestetik, komunismoa, Sobietar Batasunak gidatua, eta laster munduko beste herrialde batzuetan gobernu modu gisa hartua, Txina barne.

Eraginkortasun-eskualdeen banaketan desadostasuna potentzia garaileen artean, batez ere Balkanen inguruan eta Asiako Hegoaldean.

Inperio britainiar eta frantsesen ahultzea: bi herrialdeek aliantza bilatu zuten Estatu Batuekin, balizko inbasio sobietar bati aurre egin ahal izateko. Bestalde, bai Sobietar Batasuna bai Estatu Batuak beren **eraginkortasun-eremua** hedatu nahian zebiltzan, Frantzia eta Erresuma Batuko antzinako kolonien gainean.

1945etik aurrera, mundua izaera antagoniko eta bateraezineko bi aliantza edo "bloke" handitan banatua geratu zen eta horrek bien arteko gerra oso baterako aukerak zabaltzen zituen:

Mendebaldeko Blokea: Estatu Batuek eta Europako mendebaldeko herrialdeek osatua. Gainera Latinoamerika, Australia, Zeelanda Berria eta, Afrika eta Asiako beste zenbait herrialderen laguntza zeukan. Bere sistema militarra NATO n oinarritzen zen (Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundea, 1949an sortua).

Bloke komunista: Sobietar Batasuna, Txina, Mongolia, Ekialdeko Europa eta, Afrika eta Asiako beste zenbait herrialdek osatua, baita Kubak ere iraultzaren ondoren. Hauen erakunde militarra Varsoviako Hitzarmena izan zen, 1955ean fundatua.

Gerra Hotzaren amaieran, distentsio-garaia izan zen (1985-1991). Baina ez zen Gerra Hotzeko distentsio-une bakarra izan, gorabehera handiak izan baitziren bi blokeen arteko harremanetan; ondoren, Kubako misilen krisiak ekarritako distentsioa , eta 80ko hamarkadaren inguruan izan ziren tentsio-uneak aztertuko ditugu.

Euromisilak eta bakearen leherketa Europan eta AEBn

Hasiera batean gerraren erdigunea Europa izan bazen ere, berehala desplazatu zen Hirugarren Mundura. Europan ez zen gatazka militarrik sortzen; bai, ordea, Hirugarren Munduan blokeek zeharka lagunduta, ez baitzuten elkarren aurka zuzenean aritu nahi, Hirugarren Mundu Gerra bat hasiko zen beldurrez. Mendebaldean Kuba eta Estatu Batuen aurkako iraultza batean sartu ziren eta ekialdean, Vietnamera eta Koreara zabaldu zen iraultza sobietarra.

Kuba ere komunista bilakatu zen eta Sobietar Batasuna izan zuen laguntzaile. AEBk mehatxu larritzat hartu zuen Kuba, AEBren eragin-esparruan zegoen irla, komunista egin izana. Tentsioak gora egin zuen Kuban karga nuklearra eraman zezaketen misilak jartzen hasi zirenean. SESBren eraso nuklear baten arriskuaren beldur ziren. 1962an izan zen.

Krustxev SESBko presidentek Kubara karga nuklearra zuten itsasontziak bidali zituenean jo zuen goia egoera horrek. Estatu Batuetako Kennedy presidentek Kubari itsas blokeoa egiteko aginduz erantzun zuen, irlara misilik sar ez zedin, eta, era berean, itsasontziek AEBk aurrez ezarritako muga bat iraganez gero, eraso egingo zutela mehatxu egin zuen. Une larriak bizi izan ziren, baina, azkenean, Krustxev presidente sobietarrak atzera egin zuen. Orduan egon zen gertuen Gerra Hotza Hirugarren Mundu Gerra bilakatzetik.

Gertutasun horren ondorioz, blokeen arteko harremana gozatu egin zen, nolabait. Bloke batek ere ez zuen Hirugarren Mundu Gerra nahi. Halere, distentsio -

une bat baino ez zen izan, gerora 80ko hamarkadan berriz ere gora egin baitzuen tentsioak.

70eko hamarkadan, AEB misil nuklearrak ezartzen hasi zen Europako erdialde eta ekialdean Sobietarrek jarri zituzten SS-20 misil estrategikoei aurre egiteko argudioarekin. AEBk SESBri misil horiek kentzeko eskatu zion. Erabakirik hartzen ez bazen, Washington-ek Europako ekialdean misil berriak ezarriko zituela egin zuen mehatxu. Kazetariak *euromisilak* deitu zituzten misilok.

1979an NATOk ondorengo adierazi zuen: AEBren eta SESBren arteko negoziaketak aurrera egiten ez bazuen, hau da, sobietarrek misilak erretiratzeko ez bazituzten, *Pershing* eta *Cruise* delako misilak ezarriko zituela Britainia Handian, Belgikan, Holandan, Italian eta Alemaniako Errepublikan Federalean. Reagan-ek misilak kentzeko eskatu zuen berriz ere, horrela ez baitzituzten *Pershing* eta *Cruise* misilak jarriko.

Eztabaida askoren ondoren, SESBk ez zituen misilak kendu, ondorioz, NATO *Pershing* eta *Cruise* misilak ezartzen hasi zen. Betiere, misilak hartuko zituzten herrialdeen parlamentuaren onespenearekin. Eztabaida horien inguruan indartu ziren mugimendu bakezaleak Europako ekialde osoan. Europa misil-zelai bat bilakatzeari uko egiten zioten. 1987an bukatu zen krisia, AEBren eta SESBren arteko hitzarmenarekin. Aipaturiko misilak kentzeko konpromisoa hartu zuten bi blokeek. Ordurako, ordea, oso ahulduta zegoen mugimendu bakezalea.

50eko hamarkadatik 80kora. Jarraipena edo mugimendu berria?

80ko hamarkadako lehen erdialdean izandako mugimendu bakezalea da guk aztertuko duguna, baina ezin da ahaztu Europako hainbat herrialdetan 50eko eta 60ko hamarkadetan ere izan zirela mugimendu bakezaleak. Ez dirudi, baina, mugimendu horien jarraipena denik, baizik eta mugimendu berri bat. Dударik gabe, bat egiten dute puntu askotan: helburu orokorrean, kide berak dituzte (50 eta 60ko hamarkadetan CNDn zebiltzan asko ariko dira gero, 80ko hamarkadan, ENDn, adibidez), helburua erdiesteko aukeratutako bideetan... Halere, ezin da esan mugimendu bera direnik, zeren 80ko hamarkadan ordura arte kide izan ez ziren hainbat lagun hurbildu baitziren, eta mugimenduaren filosofia, beharrak eta helburuak ere neurri handi batean ezberdinak baitziren.

Mugimendu bakezalea herrialdez herrialde antolatutako mugimendua izan zen, mugimendu internazionala izan zen neurri berean. Eta, hala izanagatik, berezitasunez josita dago. Lan guztian zehar ikusiko dugu han-hemenka sorturiko mugimenduen arteko ezberdintasunak argiak direla. Hiru gune izango dira nagusi; AEB, Mendebaldeko Europa eta Ekialdeko Europa. Nahiz eta toki horietan mugimendu bakezaleek denboran bat egin, baita filosofian zein sustatzaileetan ere, batzuetan, oso ezaugarri desberdinak dituzte.

Halere, nahiko argi ageri da aurreko atalean aipatu dugun disuasio nuklearraren bukaerari emandako erantzuna izan zela mugimenduaren hazia. Afganistaneko gerra, AEBn Reaganen berrarmatzea, SESBk bere lurraldean jarritako misil berriak... eta batez ere NATOk Mendebaldeko Europa deitu zenean jarri nahi izan zituen *Pershing* eta *Cruise* misilak, *euromisilak* deituak, izan ziren mugimendua pizteko arrazoia. Piztu herrialde batzuetan, ordura arte mugimendu bakezalerik egon ez zelako (Italian, eta Mendebaldeko Alemanian, adibidez), eta berpiztu beste

batzuetan, tradizio handiagoa zutelako (aipatu dugun BHko CNDren kasuan, adibidez).

Helburu zehatz horiei lotuta "jaio" zen bakezaletasuna hamarkada hartan ordura arte guztiz ezezaguna zen neurri batean, gainera. Helburu orokorra berdina duten arren, helburu zehatza ezberdina da, bistan denez, 50eko hamarkadan bizi zen goera eta 80ko hamarkadan bizi zena ezberdina baitzen.

Halere, Klandermans-ek *Peace Movements in Western Europe* izeneko liburuan idatzirik hitzaurrean adierazten duenez, hasierako mugimendu horiek berebiziko garrantzia dute ondoren eratukoetan. Izan ere, mugimendu horiek izango dira ondorengo oinarri, ez soilik filosofiari edo balioei dagokienez, ikusi dugunez, badituzte-eta ezberdintasunak, baizik eta baita mobilizaziorako aukera eta hau ahalbidetzeko elementu gisa ere. Britainia Handian CND izeneko taldearekin eta Belgikan IKV izeneko taldeek eginiko lanak erabat baldintzatzen du, esaterako, herrialdeotan 80ko hamarkadan sortutako mugimendua: baliabideak, ekintzak, balioak...

Presentzia handia izan zuen garai hartako mugimendu bakezaleak kalean, eta, Agirrek dioenez, 1985era arte eztabaida bizia eragin zuen baketzeari buruz. Hala azaltzen du Klandermans-ek, *Peace movements in Western Europe and the United States* liburuan³.

In the 1980s peace movements occupied politics in Western Europe and the United States more than any other movement. People marched through the streets in almost every country. Political parties and representatives were lobbied intensively. Unions, Churches, and women's and youth organizations were drawn into coalitions with peace movements organizations. As a result of peace movement activities, some governments nearly broke down, others became engaged in troublesome discussions with their constituencies within and outside the parliament. There was a time when not a day went by without some account of peace movement activity appearing in the mass media and when the peace movement was a topic of conversation in many circles-among opponents and proponents alike

Eta zergatik hartu zuen halako garrantzia 80ko hamarkadan? Adituek hainbat arrazoi aipatzen dituzte. Arestian aipatu dugunez, AEBn, orduko Gerra Hotzeko blokeetako batean, beraz, Reagan jarri zen agintean, eta komunisten aurkako diskurtsoa gogortu egin zuen. Horrek III Mundu Gerraren atarian egon gintezkeelako sentrazioa sortu zuen gizartean. Klandermans-ek aipatzen duenez, Reagan-en administrazioaren erretorikak indartu egin zuen gerra nuklear hurbilaren beldurra eta lasterketa armamentistarekiko kezka. Cruise misilak sua pizteko behar zen txinparta besterik ez ziren izan autore horrek dioenez. Herrialdeetako gobernuak ziren, gainera, arma horiek euren lurraldean jarri edo ez jarri erabaki behar zutenak, eta horrek indar handiagoa eman zien herrialde horietako mugimenduei; aukera politiko argia eskaini zien parlamentuan presioa eginez, eta arazoa agendan ezartzen saia zitezten.

Halere, autore horren ustez, ezinezkoa izango zen gisa horretako mugimendurik sortzea alde aurretik izandako mugimenduen esperientzia eta baliabideen metaketarik gabe, eta mugimendu bakezalea sortu baino lehenagoko beste talde batzuen agerpenik gabe; esaterako, ikasleen mugimendua, mugimendu

³ KLANDERMANS, B., *International Social movement research, Volumen 3, Peace movements in Western Europe and the United States*, Jai Press, 1991.

ekologista, eta emakumeen mugimendua (beste atal batean aztertuko dugu bakezaletasunak horiekin izan duen lotura). Gainera, mugimenduak beste faktore bat izan zuen alde; izan ere, gobernu kontserbadoreei oposizio bateratu bat egiteko gune gisa eratu baitzen herrialdez herrialde.

Agnes Heller-en ustez, baina, III. Mundu Gerra zetorrelako sentsazio edo beldur horrek ez zuen bat egiten benetako mehatxuarekin. Autore horren ustez, mugimendua ez da gerra nuklear berehalako baten mehatxuaren ondorioa, baizik eta erantzun sinboliko zabal bat, Mendebaldeko gizartearen hainbat kezka eragindakoa, hiru gertakari hauek aintzat hartuta: mundu mailako depresio ekonomikoa; Amerikaren mundu mailako hegemoniaren amaiera; eta "mundu berri" baten itxaropen ororen desagertzea, edota baita "sozialismo erreformatu" batena ere. Argigarriak izan daitezke autoreon hitzok⁴:

Fue verdaderamente el fin del mundo que había parecido tan bueno como lo que prometía. No yyes de extrañar, pues, que la principal imagen que surge sea el fin simbólico del mundo, el holocausto nuclear.

Klandermans-ek ez dio halako garrantzirik ematen mehatxua benetakoa ote zen edo sortua ote zen eztabaidari. Premisa honekin labur liteke bere ikuspegia: «Errealitateak berak baino gehiago errealitatearen gaineko interpretazioek gidatzen dituzte ekintza politikoak». Gainera, ekintzarako jendeak argi eduki behar du ekiteko dituen baliabideak helburua lortzeko eraginkorrak izango direla.

Hala da kasu honetan ere. Mehatxuak, beldurrak eta horrelakoak sozialki eraikitakoak dira, interpretazioak funtsean, eta esan dugunez, ekintza politikoa bideratzeko errealitateak baino garrantzi handiagoa dute. Halere, ez dago interpretazio bakarrik errealitatearekiko, baizik eta aktore adina interpretazio. «Egoera batek —dio Klandermans-ek—, definizio mordoa sor ditzake, lehiaren dauden aktoreen sostenguarekin. Egin dezagun horren aplikazio praktikoa. Egoera, errealitatea, lasterketa armamentista litzateke, eta jo dezagun, nahiz eta errealitatea pluralagoa izan, bi aktore daudela egoera hori interpretatzeko, AEBko gobernu eta SESBko buruzagitza, batetik, eta bake-mugimendua, bestetik. «Arrisku bizian gaude», litzateke bi taldeen adierazpena, baina arrazoi ezberdinengatik. Elkarren mehatxuak eramango litzateke lehen taldeko bi indarrak hori esatera. Bigarren taldearen ikuspuntutik, aldiz, arriskua AEB eta SESB elkarrengandik "babestu" behar horrek sortuko luke. Goazen, bata eta besteak arriskuaren aurrean armak erabiltzeari emango lioketen interpretazioa ikustera.

«Arrisku bizian gaude. Arma horiekin, bakea eraikitzen ari gara», litzateke lehen taldearen errealitate horren interpretazioa, eta «arrisku bizian gaude», bigarrenarena, «arma horiekin ez dago bakea eraikitzerik». Bi interpretazioak lehiaren daude, eta hori helburua lortu edo ez, jadanik bada nahikoa lorpen eta eragin bake-mugimenduentzat, beranduago aztertuko dugunez.

80ko hamarkadan izandako bakezaletasunaren gorakadak adierazten du ezen bake-mugimenduak Gerra Hotzaz eta lasterketa armamentistaz zuen interpretazioak pisua hartu zuela lehia horretan, eta gizartearen zati handi batek bere egin zuela, halako moldez non kalera ateratzeko beharra sentitu baitzuen. Mehatxuaren interpretazioa bera garrantzitsuagoa da, Klandermans-ek dioenez, mehatxuaren

⁴ HELLER, A., *Sobre el Pacifismo*, Editorial Pablo Iglesias, 1985, Madrid

benetako izaera baino ekintza politikoak bideratzerako orduan. Benetan gertatu zena hori baino konplexuagoa izan zen (lan honetan ere irakur liteke hori). Horrekin guztiarekin hauxe adierazi nahi dugu: mehatxua errealia izan edo ez izan, mehatxuaren pertzepzioa da benetan garrantzitsua.. Bistan denez, gizartearen zati handi batek hala uste izan zuen, lasterketa armamentista eta Gerra Hotza mehatxuak zirela, eta horregatik erabaki zuten kalera jotzea, bakezale egitea eta abar.

Mugimenduak edo mugimendua?

Bake-mugimendua ez da mugimendu monolitiko bat, hainbat talde ditu bere baitan, bakezale erradikalenetatik hasita, arrazoi zehatzek mugituta parte hartzen dutenentaraino. 80ko hamarkadan talde berezi batzuk ere sortu ziren, bakezale muturrekoenek neomilitaristatzat hartu dituztenak, estrategia eta arma ez ofentsiboak erabiltzearen alde egiten zutelako. Hamaika gehiago aipa daitezke, baina horrekin aski da ikusteko bakezaletasunaren baitan biolentziaren tolerantzia maila ezberdinak onartzen dituzten taldeak daudela. Horrek hainbat eztabaida ekarri ditu. Ondorengoak lirateke Mariano Agirrek⁵ aipatzen duenez, eztabaida hauen oinarriak:

- Oinarriko mugimenduen eta liderrak agertzearen arteko tentsioa.
- Ekintza soil baten inguruan ekitearen, edo ekintza politikoak programa zabalago baten baitan antolatzearen arazoa.
- Tentsioa garai nuklearrean bakeak berehalako helburu behar lukeela eta erantzun azkarra behar duela dioten taldeen, eta gerraren arriskua zapalketaren oinarriak ezabatzean desagertuko dela diotenen artean. Hau da, bake negatiboaren, eta bake positiboaren⁶ aldekoen arteko eztabaidak.
- Indarra erabiltzeari uko erabatekoa egitea, edo justifikatuta legokeen kasuetan erabiltzea.
- Antimilitarista erabatekoen, eta herrialde iraultzaileetan indar armatuen erabilera justifikatua ikusten dutenen arteko eztabaida.
- Legearen baitan soilik ekin nahi dutenen, eta kasu batzuetan legez kanpoko metodoak erabiltzearen alde direnen arteko eztabaida.

Hala ere, Heller-ek dioenez, 80ko hamarkadan egondako III. Mundu Gerra sortzeko beldurrak, eta bizi izan zen paniko-egoerak, nolabaiteko "ildo bakarra" sorrarazi zuen mugimenduaren baitan. Kritikak saihestu egiten zituen egoera horrek, Ekialdeko Europan, batez ere. Alemaniako egoera da autore horren ustez adibiderik nabarmenena. Dioenez, Mendebaldeko Alemaniako eta Ekialdeko mugimenduen artean harremanik egon ez zedin oso gogor hartzen zituzten Ekialdean mugimenduari buruzko kritikak (estatuaren mugimendu ofiziala zelakoan), eta konspiratzaile kapitalista gisa aurkezten zuten kritikarik txikiena ere egitera altxatzen zena. E.P. Thompson-en esaldi batek⁷ ederki adierazten du zein den mugimendu bakezalea estatuaren mugimendu ofiziala izatearen ondorioa: «Mendebaldera bake-

⁵ AGIRRE, M., "Pacifismo", in MARDONES, J.M. (zuz), *10 Palabras clave sobre los movimientos sociales*, Verbo Divino, 1980.

⁶ Bake negatiboa gerrarik gabeko mundu batea biziko litzatekeen egoera litzateke, bake positiboa, aldiz, gerrarik gabeko eta zapalketarik gabeko mundu batean biziko litzatekeena.

⁷ THOMPSON, E.P., *Nuestras libertades, nuestras vidas*, Crítica, 2002.

ofentsiba bat bidaltzen den bitartean, koarentena-egoeran jartzen da Ekialdea bake-infekzioa heda ez dadin».

Hala, bada, has gaitezke jadanik, ez soilik mugimenduko kideen artean zeuden ezberdintasunak ikusten, baita herrialdeen artekoak ere. Izan ere, ezberdintasun argiak daude Mendebaldeko mugimendu bakezaleen eta Ekialdekoen artean. Baliabideak, aukera politikoak, mobilizazio-gaitasuna... ez dira inondik inora berdinak batean eta bestean. Mendebaldeko Europako mugimenduek, gainera, bat egiten dute neurri handi batean AEBkoekin zentzu horretan, baina hori beranduago ikusiko dugu. Goazen orain Europako alde batean eta bestean gertatzen direnak aztertzeraz.

Ekialdeko mugimendua estatuak kontrolatutako mugimendua zen, eta, horrek blokeen logikan hauxe esan nahi zuen: independentziarik eza bloke baten zein bestearen ekintzei aurre egiteko orduan. Euromisilen garaian nabarmen gelditu zen agerian Bakearen Munduko Kontseilua CMP izenekoaren, SESBko mugimendu ofizialaren, inpartzialtasun eza. Orduan egindako adierazpenek zenbait armaren aurka besterik ez zuten egin, Kremlinako teoriekin ia erabat bat eginez, eta beti NATOren eta AEBren aurka eginez soilik. Misil sobietikoak onartu egiten zituen, aldiz, Gerra Hotzaren logikapean erraz uler daitekeen argudio batzuekin; sobietar misilak bakerako dira, AEBkoak, berriz, gerrarako.

Gorago aipatu dugunez, autore batzuen arabera, mugimenduen baitan kritikek leku txikia zuten. Ekialdean, baina, nabarmenagoa zen hori, esan dugunez, mugimendu ofiziala baitzen han bakezaletasunarena. Ofizialak ez ziren talde askok, eta, beraz, CMPren ildoarekin bat egiten ez zutenek errepresioa jasan behar izan zuten, klandestinitatea, baita kartzela ere hainbat kasutan (hori da Alemaniako Errepublika Demokratikoko Barbel Bohley eta Ulricke Poppe aktibisten kasua, adibidez, mugimendu bakezaleetan parte hartzeagatik giltzapetuak izan baitziren). Errepresioaren adibideak hamaika dira, baina Hungarian 1983an gertatutakoa aipatuko dugu hemen.

Bakearen aldeko kanpamentua antolatu zuen END⁸k 1983an, estatuaren eta mugimendu ofizialaren oniritziarekin kontatu gabe, eta han zeuden mendebaldarrak deportatu, eta ekialdetarrei galdeketa gogorak egin zizkieten, azkenean. ENDren eta bakezaletasun ofizialaren arteko harremanak ozpindu egin ziren hortik aurrera. Herrialdean 81ean sortu berri zen Grupo Paz y Dialogo izeneko taldea ere desagertu egin zen presio poliziala zela-eta, baina mesede gehiago egin zion horrek kaltea baino. Izan ere, haren ondoren berrindartu egin ziren bakezaleak, eta talde berriak agertu ziren.

Bistan denez, Mendebaldean baino arrisku askoz ere handiagoei egin behar zieten aurre Ekialdeko mugimendu bakezaleek, ofizialean zebiltzanak izan ezik, noski. Taldeotan parte hartzearen arriskua askoz ere handiagoa zen Ekialdean, eta, beraz, parte-hartzaileak ere gutxiago ziren, aukera politikoak ere txikiagoak zirelako. Historialaria zen E.P. Thompson, eta horrela azaltzen zuen Ekialdean, Polonian, hain zuzen ere, 1982an Mendebaldean adinako mugimendurik ez izana.

⁸ European Nuclear Disarmament izeneko taldea Britainia Handian 80 hamarkadan sorturiko mugimendu bakezalea da, besteak beste, E.P. Thompson kide zuena, eta Portugaldik hasi eta Poloniarainoko gune desnuklearizatu eskatzen zuten European.

¿Y por qué no hubo tres o cuatro millones de manifestantes en la primavera y el verano de 1982? La respuesta es la ley marcial⁹ en Polonia y la represión de Solidaridad. Una esperanza que venía creciendo desde hacía tiempo, una esperanza de que nuestro continente escindido se curase gracias a la convergencia de movimientos populares, terminó bruscamente.

Halere, ikusi dugunez, behin eta berriz egon ziren saiakerak bateko eta besteko bakezaleak batu, elkar ezagutu, eta ekintzak koordinatzeko. END izeneko taldea saiatu zen gehien horretan, nahiz eta ez zen bakarra izan.

E.P. Thompson-en beste zita bat hartuko dugu talde batzuen eta besteen arteko harremanaren zailaz ohartzeko, batez ere Mendebaldeko mugimenduen eta Ekialdeko mugimendu ofizialaren artean.

Existen dificultades muy reales en las relaciones entre los movimientos por la paz occidentales y los consejos de la paz orientales, dificultades que es preciso superar. No se trata del mismo tipo de 'movimientos por la paz'. Los movimientos occidentales son alianzas de estructura poco rígida, formadas por asociaciones populares voluntarias, que se oponen directamente a la política de sus gobiernos y hacen frente a la hostilidad de muchos medios de comunicación de sus propios países. Los consejos orientales son instituciones casi oficiales, respaldadas por los gobiernos y aplaudidas en los medios de comunicación oficiales.

"Podríamos decir que los movimientos por la paz occidentales son movimientos populares que se dedican principalmente a oponerse al militarismo occidental. Los consejos orientales son instituciones respaldadas por el gobierno que también se dedican principalmente (a veces exclusivamente) a oponerse al militarismo occidental. Esto no ofrece una relación entre iguales. Los occidentales no podemos considerarlo como un 'intercambio justo'.

Halere, izan zituzten harremanak, ENDk Perusan antolatutako nazioarteko biltzarretara ere joan ziren Ekialdeko mugimendu ofizialak, 1984an. Ez dute, oro har, biltzar haren irakurketa positiborik egiten han egon ziren bakezaleek ez eta mugimendu ofizialekoak izan zirenek ere. Ez zen berriro egin, ENDren hurrengo biltzarrera ez baitzen Ekialdeko talde ofizialik joan. Hala eta guztiz ere, hainbat autorek biltzar haietan Ekialdeko ahots ofizialaren eta "disidentearen" arteko eztabaida publikoa izanak izan zuen garrantzia aipatzen dute, gisa horretako lehena izan baitzen.

KEADEA izeneko greziar talde bakezaleak ere 1984an biltzarra antolatu zuen Atenasen. E.P. Thompson han izan zen, baina baita Ekialdeko blokeko Bake Konferentziak deitu ditugunak ere. Ez edonor, gainera, baizik eta Zhukov jauna, garai hartan konferentziako presidentea zena. Gorabeherak izan zituzten bien artean, Thompson-en hitz batzuk direla-eta, irainduta sentitu baitzen hura.

Bataren eta bestearen arteko harremanaren zailaz ohartzeko ez dago Pragako biltzarren adibidea hartu besterik. Ekialdeko mugimenduek antolatu zuten biltzarra, nahiz eta Mendebaldeko hainbat mugimendu bakezale ere gonbidatu. Biltzarrera joatea edo ez joatea erabaki gogorra izan zen. Zergatik? Hasteko Txekoslovakia SESBn baitan baitago, baina Varsoviako hitzarmenaren indarren menpe 1968 urteaz geroztik. Bestalde, Carta 77 izeneko taldea ere (1977an sortua eskubide zibilen alde lan egiteko) etengabe jazartzen dute sobietar indarrek. Ladislav Lis, taldeko

⁹ 1981ean jarriz zen indarrean lege hau eta 1983ra arte iraun zuen. Eguneroko bizitzaren eten nabarmena ekarri zuen. Gerra egoera antzeko bat deitu zela esan daiteke, eta hainbat mugimendu demokratiko debekatu egin zituzten (Solidarnosk, besteak, beste), baita hainbat lider kartzelaratu ere.

horretako kidea, adibidez, atxilotu egin zuten Ekialdeko eta Mendebaldeko mugimenduek elkar ezagutzeko eta laguntzeko eskatzen zuen eskutitz bat idazteagatik. Thompson-ek ere, CNDko hizlari gisa, hala jaso zuen egoera.

Pero, ¿qué podemos hacer al respecto? Negarnos a asistir a la conferencia podría tomarse como una negativa a "hablar con el otro bando", cosa que ahora desea hacer todo el mundo. Asistir a ella quizás haría pensar que condonamos la ocupación de Checoslovaquia por los soviéticos [...], y que aceptamos asimismo la represión de los activistas de los derechos cívicos que han estado intentando iniciar el diálogo con el movimiento por la paz occidental.

Azkenean, CND taldearen Kontseilu Nazionalak Pragara bi begirale bidaltzea erabaki zuen, eta han ziren bitartean Carta 77 taldeko kideekin elkarrizketak izatea. Nola edo hala egin zioten aurre arazoari, ez, ordea, eztabaida gutxirekin.

Egoera ezberdina zen bloke bateko zein besteko bakezaleentzat, baina baita bloke berean herrialde ezberdinetan zeudenentzat. Ez dugu orain herrialdez herrialdeko azalpenik emango, baina AEBko eta Europako mugimenduen artean izan zen ezberdintasun eta distantzia nabarmena aipatzea, labur bada ere, beharrezkoa dela uste dugu, mugimenduaren benetako aniztasunaren argazki fidela egiteko.

Klandermans-ek *Peace Movements in Western Europe and the United States* izeneko liburuko hitzaurrean dioenez, AEBko mugimendu bakezalearen une gorenak Europakoaren une gorenarekin bat egin zuen denboran, ordea, ez, helburu zehatz bera zutelako. Izan ere, armamentu nuklearra geldiaraztekoa zen haien eskari nagusia, Europakoena Pershing eta Cruise misilak ez ezartzea zenean. Hala, autore horren arabera, elkarri sostengua erakusten bazioten ere, arazo franko izan zituzten elkar ongi ulertzeko; izan ere, Europako hainbat bakezalek uste zuten AEBn euromisilez ardurarik ez zegoela, eta AEBkoek, aldiz, unilateralegitzat jotzen zituzten Europako eskariak.

Goazen azkenik, Mendebaldeko Europako mugimendu bakezalearen partaideez hitz egitera, labur bada ere, haien aniztasuna edo honen gabezia aztertuz. *The CND Story*¹⁰ izeneko liburuaren pasarte batek argi azaltzen du BHko bake-mugimenduan bizi zen egoera. Freda Ehlers Brisoleko bakezalearen hitzak dira ondorengoak:

In CND I have to mix with so many odd people that the sooner we ban the bomb, the better.

Oso jende ezberdina biltzen zela adierazteko balio digute adierazpenok, baina ez horretarako soilik, hitz horien hariari tiraka, mugimenduko partaideei buruzko beste ezaugarri bat jaulki baitezakegu. Askotarikoa izan arren, eta askotariko jendea bildu arren, egia da, edo hala azaltzen digute hainbat adituk, mugimenduko kideak erdi mailako gizartekoak zirela gehienbat, Klandermans ek *New Left* deitzen dituenak, hain zuzen ere. Gazteak, heziak, eta gizartearekin zerikusia duten lanetan aritzen zirenak, ezkerreko ikuspegikoak, gehienbat. Unibertsitateko irakasleak eta halakoak ere bazeuden, baita langileak eta beste gizarte-talde batzuetako kideak ere, erlijiozaleekin batera. Halere, esan dugunez, nagusiki klase erdikoak ziren kiderik gehienak. Hala dio behintzat Heller-ek.

¹⁰ MINNION, J; Bolsover, P., *The CND Story: The First 25 Years of CND in the Words of the People*, Allison & Busby, 1983.

Mugimendu bakezalea, mugimendu berrien ikuspegitik aztertuta

Orain arte mugimendu bakezaleak zer diren ikusi dugu, gutxi gora-behera. Goazen orain gizarte-mugimendu berriak deritzenak zer diren zehaztera, eta ikustera ea mugimendu bakezaleek haien definizioarekin bat egiten duten, gisa horretara hobeto ulertuko baitugu bakezaletasunaren benetako izaera. Tilly eta beste hainbat autoreren ikuspuntutik gizarte-mugimendu berriak "bizitza-estilo" baten aurka sortzen dira. J.M. Mardonesen "NMS y sociedad moderna" izeneko artikuluan aurki dezakegun esaldi honek nahiko argi adierazten du ikuspuntu hori. «Los NMS se alzan contra el predominio cultural y social de un modo de vida anudado a la tríada sagrada de nuestro sistema capitalista: el productivismo, el militarismo y el patriarcalismo»¹¹.

Mugimendu berriak deitzen dira, zeren eta J. L. Cohen-ek dioenez, «se estaría indicando una defensa de la sociedad civil frente al estado», eta NMSeK errebolta postburgese, postindustrial eta langileena, postpatriarkal eta demokratikoa planteatzen dute, gizarte zibilaren eskutik. Hau da, teoriko hauek diotenez, jada NMSeK ez dute ezinegon sozialaren oinarria arrazoi ekonomikoetan jartzen, baizik eta bizitza-filosofian, nolabait ere.

La crisis de la modernidad hay que buscarla en el orden cultural, pero camina por el lado del modelo o estilo de vida y, más concretamente, por aquellos elementos donde se juega la identidad personal y colectiva, el sentido de la vida, las relaciones sociales en orden a alcanzar una integración social satisfactoria. Este sería hoy el problema más importante de la sociedad moderna.

Hori da, Mardones-ek dioenez, gizarte-mugimendu berrien ezaugarria, ordura artekoekin alderatuta. Autore horrek azaltzen duenez, egun arriskuaren gizartea da gurea, industrializazioa ahalbidetu zuten mekanismo berek sortzen dute arriskua, eta horiek kontrolatzeko ez dago estatu-trataturik, ez dago arrisku hori klase baxuetara pasatzerik, ez zaio, beraz, klase-borrokaren logikaren arabera aurre egiten; ozono-geruzako zuloak dirudunei zein pobreei berdin eragiten die-eta. Horregatik sortzen dira gizarte-mugimendu berriak. Habermas-ek aipatzen duen "auto-mugatze adimentsua" da gizarteak egoera horri ematen dion erantzuna, gizarte zibilaren kontzientzia hartzea, hain zuzen ere.

Balioen aldaketa bat behar da, batetik, mugimendu hauek sortzeko, ez baita XX. mendean agertzen bakezaletasunaren arazoa, emakumearena... Off-ek dio ez dela hain garrantzitsua balio-aldaketa, garrantzitsuagoa dela gertatu den fede-galera. Fedea, ez erlijioan, baizik eta industrializazioak, familiak, alderdien demokraziak... balio horiek erdiesten lagunduko zuen fedearen galera.

E.P. Thompson-en hitzak ekarriko ditugu jarrera "berri" horren erakusle izan daitezkeela uste baitugu, eta bide batez gaia mugimendu bakezaleetara hurbiltzeko.

... todo discurso político tiene que dar por sentado que estamos de acuerdo en la necesidad del crecimiento económico y que el único problema estriba en encontrar el partido político más capacitado para conseguirlo. Pero a lo largo y ancho del mundo la gente hace preguntas sobre el *porqué* y el *dónde*. ¿Tenemos derecho a seguir contaminando este planeta que da vueltas? ¿A consumir y agotar recursos que

¹¹ MARDONES, J.M, "NMS y sociedad moderna", in Mardones J.M (dir), *10 palabras clave sobre movimientos sociales*, 1996, Verbo Divino

necesitarán las generaciones futuras? ¿No sería mejor el crecimiento cero, si pudiéramos dividir el producto de forma más juiciosa y equitativa?

Klandermans-en *Peace movements in Western Europe and the United States* liburuko hitzaurrea izango dugu oinarri GMBak eta mugimendu bakezaleak konparatzeko. Mendebaldeko mugimenduak eta AEBkoa izango dira, beraz, oinarria, eta ez Ekialdeko Europakoak, ez baititu ikertu.

Laburpen gisa, Klandermans-en ondorioak aipatuko ditugu, lehenik. Bere ustez, bada mugimendu bakezalea, eta ez da gizarte-mugimendu berria. Estu-estuan hala kontsideratzeak aipatu dugun mugimendu bakezaleen historiari (50eko hamarkadakoa, 60koa...) uko egitea lekarke, eta ikusi dugunez, ezin ukatuzko garrantzia izan du horrek 80ko hamarkadako mugimenduan. Bestalde, bake-mugimenduek denbora batez mugimendu berrien ezaugarri eta mobilizazio-gaitasuna besarkatu zituztela onartzen du, nahiz eta, mugimenduaren beherakadan ikus daitekeenez, gehiago diren gizarte-mugimendu tradizionalak GMBak baino. Mugimenduan parte hartzen zuten gizabanakoek ere ez zuten gizarte berri batean parte hartzearen esperientziarik jasotzen —GMBetan gertatu ohi den bezala—¹², esan dugunez, helburu konkretu batekin bat egiten zuen mugimendua izan baitzen gehienbat, eta helburu hori erdiesteko baliabiderik egokienak aukeratu zituen unean-unean. Goazen, bainaargudioak puntuz puntu Aztertzerara.

Balioei erreparatzen die lehenik. Mugimendu berriez espero daitekeenaren kontra bakezaletasuna Europan gai bakarreko mugimendua izan zela dio Klandermans-ek. Ikusi besterik ez dago zer gertatu zen herrialdez herrialdekako mugimenduekin gobernuek cruise misilak jartzea erabaki ondoren. Halere, eta atal honen hasieran egin dugun Thompson-en aipura bueltatuz, egia da, orobat, gizarte moderno eta industrialaren balioen aurka ere egiten zutela. Klandermans-ek dioenez, bi joera horiek mugimenduko parte-hartzaileei dagozkie: «mugimenduko parte-hartzaile aktiboak», eta «mugimenduko parte-hartzaile orokorrei». Lehenei legozkieke, gehienbat, sinesmen kontra-moderno horiek, baina ez, halabeharrez, mugimenduan parte hartzen zuen gehiengoari, hau da, bigarrenei, ezta parte-hartzaile aktibo guztiei ere. Herrialdez herrialde egoera desberdina da, gainera.

E.P. Thompson-enak dira gai honekin lotutako hurrengo adierazpenak. Garbi erakusten dute aipaturiko bi talde horietakotan dagoen, baina baita mugimendu bakezalearen hegala baten "harago" jotzeko nahia ere.

[Los movimientos por la paz] Han desafiado "la bomba" y detrás de ella han encontrado todo el poder del estado. Si quieren llegar a "la bomba", deben engrentarse también a toda una ideología manipulada por el estado y sancionada por los medios de comunicación.

Antolaketari dagokionez, bi aldeko txanponak dira mugimenduak. Italiako eta Mendebaldeko Alemaniako mugimenduak aipatzen ditu gizarte-mugimendu berrien antolaketaren antzik handiena luketenen gisa, deszentralizatu eta estruktura autonomoen konglomeratu gisa, beraz. Britainia Handian, Belgikan eta beste herrialde batzuetan bakezaletasunak agertzen duen "aterki" antolaketa litzateke

¹² KLANDERMANS, B., *International Social movement research, Volumen 3, Peace movements in Western Europe and the United States*, Jai Press, 1991. "New social movements theory studies social movement organizations as goals in themselves; social movement organizations are seen not as to realize external goals, but as democratic enclaves in an undemocratic society in which autonomous social action creates new identities".

txanponaren beste aldea, eta, beraz, mugimendu berriekin estu-estuan bat egingo ez lukeena.

"Politika eta Gizarteagandiko disoziazioa" aztertzen duen hurrengo puntua. Mugimenduak argi eta garbi hartu zuen parlamentuan presioa egiteko estrategia, mugimendu berriekin gertatzen ez den bezala. Gobernuak misilak jarri edo ez jarri erabakitzeke behar izan zuen denborak ematen du hala hainbat herrialdetan mugimendu bakezaleek izan zuten iraupenaren berri. Erabakia hartu, eta indarra galtzea bat izan ziren, gehienetan. Mendebaldeko Alemaniakoa da adibiderik nabarmenena Klandermans-ek dioenez. 1982an gobernu-krisia izan zen, SPD sozialdemokraten eta FDP liberalen arteko koalizioak gobernua utzi baitzuen, SPDko diputatuen zati handi batek misilak ezartzearen aurka egin baitzuen, eta Helmut Köhl-en zentro eskuineko alderdiari utzi boterea urte askorako.

Bake-mugimenduek erabilitako ekintzei dagokienez, adituak dio, egia dela egin zituzten ekintzak askotarikoak izan zirela (gogoratu, adibidez, Greenham Commoneko base militarra inguratu zuten emakumeak¹³), baina, gehienbat, mobilizazio tradizionalak izan zirela nagusi.

Gazteak, heziak, eta gizarte-laneko profesional gisa aritzen dira lanean bake-mugimenduetako aktibistak, eta, beraz, bat egiten dute mugimendu berrien tipoarekin. Askotarikoa da, halere, mugimendu berrien aktibistaren tipoa, ez dute klase erdi berriko kideek soilik osatzen. Bakezalearen tipoa, aldiz, klase erdi horrek osatzen du batez ere, nahiz eta herrialde batzuetan langileek ere parte hartu, neurri txikiagoan bada ere.

Arrazoiketa horri jarraituz heltzen da Klandermans aipaturiko ondorio nagusira, hau da, mugimendu bakezalea gehiago zela mugimendu tradizionala berezko gizarte-mugimendu berria baino, zeina egoerak bultzatuta mugimendu berrien izaera eta ekintza motak besarkatzera heldu zena, .

80ko hamarkadako bake-mugimenduaren eragina

Orain arte han eta hemen ikusi dugunez, ez da irizpide bateraturik mugimendu bakezaleen arrakasta eta eraginari buruz. Ez zuten beren helburu zehatz eta zuzena lortu, eta horren ondorio da, neurri handi batean, euromisilak jarri eta gutxira mugimendu bakezaleak izan zuen beherakada nabarmena. Halere, bistan da indarra izan zutela, bai beren aldarria gizartean aktibo egon zedin, bai eta aktore sozial gisa beren errealitatearen interpretazioa beste aktoreenarekin lehian izateko. Atal honetan hainbat autorek horri buruz egindako gogoetak bilduko ditugu.

Euromisilak jarri izana, bada, Agirrek dioenez, mugimenduaren beherakadaren arrazoietakoa bat, baina beste faktore bat ere aipatzen du, SESBren desagitea, Gerra Hotzaren amaiera, modu unilateral batean eman izana azkenean, mugimendu bakezaleen jarrera multilateralala albo batera utzita. Gorbachov gero eta ahulago batek gero eta amore-emate handiagoak egiten zizkion beste blokeari, eta onodorioz, desarmea gero eta modu asimetrikoagoan gertatzen zen (Afganistan

¹³ 1981eko irailean AEBek Greenham Commoneko base militarra, Britainia Handian, 96 Cruise misil eramane behar zituztela eta Galeseko "Women for Life on Earth" izeneko emakume taldeak "bake kanpamendua" antolatuta zuen basearen inguruan misilei sartzen ez uzteko. 1983an izan zuen kanpaina honek goreneko unea, 14 mila pertsona batu baitziren giza kate erraldoia eratuz.

uztea, Fidel Castrori laguntzak murriztea...). Bloke bat erorita, lasterketa armamentistak behera egin zuen, indar armatuei eskainitako aurrekontuak behera egin zuen, hainbat herrialdetan beharrezko soldadutzari buruzko eztabaida bizitu egin zen...

1987an idatzi zituen E.P. Thompson-ek ondoko hitzok. Ekialdeko blokearen irekierak eta Mendebaldekoan (NATOn) ikusten ari ziren barne-kontraesanek eremu egokia osatzen zuten mugimendu bakezaleek ordura arte izan ez zuten indarra erdiesteko.

Están dos fuerzas (la nueva apertura del "Este" y las contradicciones en el "Oeste") ofrecen un campo de oportunidad a los movimientos por la paz.

Gerora gertatu zena ezagututa, baina, ez dirudi NATOn barne-kontraesan horiek, eta, batez ere, Gorbachov-ek ekarritako aldaketek mesederik egin diotenik mugimendu bakezaleari. Agirreren ustez ere, ezin da esan Gerra Hotza gisa horretan bukatzeak onurarik ekarri zionik mugimendu bakezaleari.

Neurriok mugimendu bakezaletik abiatu zirela esan daitekeela dio Agirrek, baina hiru errealitate bereizten ditu: mugimenduak proposatu zuena, errealitatean lortu zena, eta azkenik herritarrek jasotakoa. Paradoxa bat aurkezten da puntu honetan. Bake-mugimenduek proposatutako desarma, "bakea" (negatiboa behintzat) eta beste helburu batzuk bete egin ziren, neurri batean bada ere, baina kontzientzia publikoak ez zuten mugimenduen lorpenzat hartu, ikertzaileak dienez, *mass mediak* jokaturako papera dela-eta, neurri handi batean. Mugimendu bakezaleak bere burua ikusarazi egin nahi zuten 80ko hamarkadan, pisua izan albistegietan, eta hala gizartean. Hori izan zen aukeratu zuten presio egiteko modua. Eta arazo larria du estrategia horrek:

mass mediak benetako gertakariak irentsi egiten ditu, albiste azkar bihurtu, eta bertigo eta irrealitate sentsazio bat sortzen du teorikoki nformatuta dagoen hiritarrarengan. [...] la eskusiboki gizarte modernoaren tresna despolitizatzaile nagusian agertzen saiatuz, hauetan beren burua ikusgarri egiten, gizarte-mugimenduek beren mezu politikoak 30 segundu iraun ditzen laguntzen dute.

Eta hala, "bakea" heldu zenean, medioek, eta herritar gehienek, gizarte-mugimenduen lorpena baino gehiago Gorbachov-en lorpena izan zela jaso zuten, baita Reagan-ena ere.

Bi jarrera sortu zituen Gerra Hotzaren amaierak. Batetik, bakea lortu zela uste zuen jendea zegoen, eta, beraz, mugimendua utzi zuena, asebeten taldea deituko duguna. Bestetik, beste talde batzuek uste zuten egindako esfortzu guztia, mobilizazioak eta abar alferrekoak izan zirela, etsipenaren taldea deituko duguna da bigarren hau. Jarrera batek zein besteak mugimenduaren hustea ekarri zuten, hainbat liderren jarrerarekin batera (Txekiar Errepublikako presidentearena kasu, "oinarririk hasitako distentsioa"-ren alde egitetik, Mendebaldeko segurtasun-sistemak goratzera pasatu zena).

Mugimendu bakezaleak utziriko hutsune hori, giza laguntza eskaintzen duten taldeek hartu dute orain Agirreren ustez.

Adituek ere ez dute bat egiten bake-mugimenduek izandako eraginari buruz hitz egiterakoan. E. P. Thompson-ek eta Mary Kaldor-ek diote, batetik, mugimenduak

berrarmatzea deslegitimatzea lortu zuela, baita oinarritik hasitako distentsioa sortu zuela, , zeinak Gerra Hotzaren bukaera lortzen lagundu zuen. Eta Fred Halliday dago beste aldean, honek dioenez, mugimenduak ez zituen bere helburuak lortu, eta Gerra Hotzaren bukaera sobietarren krisiaren ondorioa da.

Argi dago, beraz, mugimendu bakezaleak ez zuela lortu bere azken helburua betetzerik; gerrak ekiditea. Ez eta bere helburu zehatza ere, euromisilak ez jartzea. Blokeen teoriarri arrailak sortzen izan zuen garrantziari buruz ere eztabaida bizia da.

Agirreren ustez, Mendebaldearen eta Ekialdearen arteko erlazioak berritzea lortu zen garai hartan, baina ez zen bake-mugimenduaren lorpena izan. Ez du, ordea, ikuspegi horrekin bat egiten Ruiz Jimenez-ek¹⁴. SESBren desegiteak berebiziko garrantzia izan zuela aitortzen du, baina mugimendu bakezaleek ere eragina izan zutela dio. END izeneko talde bakezalearen (hasieran aldizkaria bakarrik zen arren) inguruan ardazten du bere lana, eta horren baitan "behetikako distentsioa"-ren alde egiten zuten adituei eskaintzen die arretarik handiena, E. P. Thompson-i batez ere.

Gerra Hotzarekin bukatzeko Thompson eta beste hainbatek zuten ikuspegi multilateralak eragina izan zuen, neurri batean, Mendebaldeko eta Ekialdeko biztanleen eta, beraz, baita mugimendu bakezaleen arteko harremanak indartzeko orduan, baita blokeen teoriaren legitimazioa eraisteko ere. Thompson-en aipu esanguratsu bat biltzen du Jimenez-ek.

Fue el movimiento pacifista no alineado occidental, al concertar un diálogo y desarrollar una serie de acciones comunes con el movimiento por los derechos humanos en el Este, el que posibilitó el impulso ideológico que hizo saltar los cerrojos de la Guerra Fría

Autoreak, halere, aitortzen du Ekialdeko gazte askok eta askok END urrun ikusten zutela. Ez zuten, ordea, hain urrun sumatzen NATO. Ongi iruditzen zitzaizkien askori sobietarren hedapen-gosea geldiarazteko gai izan omen zitekeen erakunde haren lana. Bitxia da, bestalde, Ekialdean ezaguna zela Mendebaldeko bake-taldeen lana, zeren NATOren aurkako jarrera zuten heinean propaganda-sistemak erraz har baitzezakeen bere baitan mugimendu hura. Mugimenduaren filosofia osoa erakusten ez bazuten ere, garrantzitsua izan zen hori mugimendua Ekialdean ezaguna egin zedin, eta zubiak eraikitzen hasteko.

Klandermans-ek dio mugimenduaren eragina handia izan zela (betiere Mendebaldeko Europako eta AEBko kasuez ari dela), eta, beraz, baita arrakasta ere, nahiz eta, esan dugunez, huts egin bere helburu zehatzak zein nagusiak erdiesteko ahaleginean. Hona bere arrazoia. «Mugimendu bakezaleak ia 10 urtez izan du politikaren arreta. Ez dago iragan hurbilean sistema politikoan bake-mugimenduek adinako eraginik izan duen beste mugimendurik». Haren ustez, herrialdez herrialdeko gobernuek misilak jarri edo ez jarri zalantza izan da mugimendua politikan zentratu izanaren arrazoia, nahiz eta porrot egin, eta kasurik onenetan misilen ezartzea atzeratzea lortu.

Pentsatzekoa denez, gobernuek hartutako erabakiek, beraz, nabarmen eragin dute bake-mugimenduaren estrategietan. Misilak ezarrita zeuden herrialdeetan

¹⁴ RUIZ JIMENEZ, J.A., *El Desarme Nuclear Europeo (END) movimiento social y diplomacia civil*, Universidad de Granada, 2006.

ekintza zuzenera pasatu zen, Britainia Handiko Greenham Commoneko emakumeen kasua gogoratu besterik ez dago horretaz ohartzeko. Mobilizazioekin jarraitzen zuten, ordea, misilak ezartzeko erabakia atzeratu zuten herrialdeetan.

Mugimenduaren eta politikaren arteko harremana aztertzen du Klandermans-ek ikuspegi horretatik *The Peace movements in Western Europe and the United States* liburuan. Esan dugunez, oposizioaren bilgune izateko gaitasuna aipatzen du lehenik aukera politikorik behinenaren adibide. Ezkerreko mugimenduek lehenik, baita eskuineko batzuek ere, aliatu erakargarria ikusten zuten bake-mugimenduan. Bientzako zeuden arriskuak; mugimendu bakezaleak bere irudi independentea gal zezakeen, eta alderdiek, berriz, mugimenduarekiko irudi hurbilegia izan eta sostengua galtzeko arriskua. Horregatik, gobernuaren eraketa alderdi indartsu baten esku ez zegoen herrialdeetan ziren interesgarrien mugimenduaren eta alderdien arteko aliantzak. Halere, ez zuen batak zein besteak uste zuen adinako onurarik izan aliantza horiekin. Herbereetako kasua adierazgarria da. Bertan, kristau demokraten alderdiko kide askok mugimenduarekin bat egin arren, ez zioten alderdiaren joera nagusiari uko egin eta misilak jartzearen alde egin zuten. Mugimenduko hainbat kidek uste zutenaren kontra, bestalde, misilak jartzearen alde egin zuten alderdiek ez zuten hurrengo hauteskundeetan beharakada nabarmenik izan.

Klandermans-ek aipatzen duen aldibereko garaipen eta porrot horren beste arrazoietakoa bat protesta-zikloen teoria da. Tarrow-en hitzak hartzen ditu horretarako. Horren arabera, zikloetan garrantzi handia dauka berrikuntza taktikoak, hau da, gobernu batek berrikuntza taktiko bati nola erantzun ez dakien bitartean, mugimenduek abantaila dute. Esan dugunez, bake-mugimendua, baina, gehiago zen mugimendu tradizionala mugimendu berria baino, eta ez zuen berrikuntza taktiko handirik ekarri. Bai, ordea, ordura arte ikusi ez zen adinako mobilizazio-gaitasuna, eta horri ere Tarrow en teoria aplika dakioke. «Gizarte-mugimendu batek errealitate politiko berria sortzen du, zeinarentzat sistema politikoak ez duen bat-bateko erantzunik, dela errepresio gisa dela erreforma gisa». Aipatutako mobilizazioek argi utzi zieten politikari guztiei cruise misilak Europan jartzea arazoz betetako erabakia izango zela, eta horrek erabakia atzeratzea ekarri zuen kasu askotan.

Misilak jarri egin ziren, ordea, eta helburuak ez lortze horrek ere eragin handia izan zuen mugimenduaren beharakadan. Bakea bezalako helburu "handiak" dituzten mugimenduetan, maiz, helburu zehatzetan huts egin izanaren eta helburu azkenak lortu ezinaren ikuspegiaren aurrean, etsipena nagusitzen da hainbat militanteren artean. Orain arte aipatu ditugunez gain, beraz, ezintasun-sentsazioa ere aipatu behar da mugimendu bakezalearen beharakada ulertzeko. Agirrek beste faktore bat ere aipatzen du, garrantzi handikoa, bake-mugimenduen "hustea" ulertzeko. Mugimendu bakezaleen eraginez, hein handi batean, nazioarteko segurtasunerako erakundeek bere egin dute bakezaletasunaren diskurtsoa. Horrek diskurtsoaren beraren desegite bat ekarri du. Harekin bat egin eta bake-taldeetan parte hartzen zutenek, nolabait ere, "salduta" (gure hitzak dira, ez autorearenak) ikusi dute beren mezua, eta bake-taldeetan parte hartu ez, baina gerora gai horrekiko interesa izan dutenek errazago izan dute, arrisku gutxiago baitakartza, erakunde horiekin bat egitera jotzea bake-taldeetara hurbiltzea baino.

Ez genuke atal hau amaitu nahi Thompson-en aipu bat esan gabe, jakinik ere, gure lana bere aipuz josita dagoela. Esanguratsua iruditzen zaizkigu, iruditu ere, Thompson-en hitzok, batez ere bake-mugimenduan erabat murgildutako pertsona

baten ahotik datozelako, eta orain arte bildutako ideien eta gogoeten nolabaiteko laburpena delako.

Durante varios años el movimiento por la paz occidental ha estado tan preocupado por el armamento nuclear, y por su potencial de aniquilamiento, que ha permanecido hipnotizado. Nos impusimos a nosotros mismos la tarea de detener ciertos sistemas nuevos de la OTAN; y, aunque hemos logrado despertar una conciencia de paz de dimensiones gigantescas, hemos fracasado en aquella tarea.

4. Ondorioak

Lanean garatutako ideiak laburbilduko ditugu orain, ondorio gisa. Alde batetik, ondoriozta genezake mugimendu bakezaleak ez zuela arrakastarik izan helburu zehatzak lortzeari erreparatuko bagenio. Izan ere, misilak jarri zituzten eta horrek bakezaleen etsipena eta Europa Mendebaldeko mugimenduaren beherakada ekarri zuen (baita besteena ere bigarren urrats gisa); batez ere, bakezale batzuen eskariak misilen inguruan oso zentratuta zeudelako. Baina kontuan izan behar da mugimenduak mundu mailako politikan garrantzi handia lortu zuela, eta hamar urtez mantendu zuela. Agenda politikoan egoten lagundu zioten mass mediek mugimenduari. Baina horrek ere aurpegi ezkorra izan zuen, bakezaleen diskurtsoa sinpletu zuelako, 30 segundoko mezu bilakatuta.

Mugimendua hain helburu zehatzean zentratu izana, beraz, bi aurpegiko txanpona izan zen. Hasiera batean, mugimenduaren une gorenean, jendea helburu horren inguruan biltzen lagundu zuen helburu zehatz bat izateak, baina gerora, misilak jarri zituztenean, mugimenduak bere funtsa galdu zuen hein handi batean, nahiz eta askoz ere eskari sakonago eta konplexuagoak ere hartzen zituen bere baitan.

Bestalde, SESBren gainbehera unilateralak zalantzan jarri zuen mugimendu bakezaleak egindako lanaren garrantzia. Izan ere, Gorbachov-en eta bere erreformen lorpena izan zela uste izan zuen jendeak, eta mugimenduaren "behetikako distentsioa" lortzeko ahaleginak ahaztu zituen.

Gainera, bloke bat erorita eta itxurazko bakea ezarrita, motibazio gutxiago izan zuen jendeak mugimendu bakezalearekin bat egiteko. Ez hori bakarrik; nazioarteko erakundeek ere bere egin zuten diskurtso bakezalea eta, beraz, bakezaletasuna ofizialdu egin zen nolabait, mugimenduaren diskurtsoaren kaltetan.

Esan dugunez, mugimendu bakezalea "oposizioko mugimendua" izan zen Europa Mendebaldeko hainbat herritan, hau da, indarrean zegoen gobernu kontserbadorearen aurka zeuden hainbat eta hainbat pertsonen bilgunea izan zen. Helburu konkretuak lagundu zuen horretan, baita haien aldarria "bakea" bezalako gai "erraza" izateak ere. Misilak jarriz gero arazoak izango zituztela aditzera ematen zioten gobernuari kalemobilizazioek, hala uste zuten bakezaleek, behintzat. Gerora, baina, misilak jarri eta ondorengo hauteskundeetan ikusi zenez, euromisilei baietz esateko erabakiak ez ziren boto-galera handirik ekarri.

Mugimenduaren eta hainbat alderdi politikoren artean harremanak izan ziren. Mugimenduko kide batzuk ere sartu ziren alderdien zerrendetan. Hasieran uste zenaren kontra, ordea, mesede baino kalte handiagoa ekarri zien horrek. Alderdiekin harremanak izanda, mugimenduak, nolabait ere, independentzia galdu zuen, beti gertatu ohi den bezala, eta handia izan ez bazen ere, ezinegona sortu zuen

mugimenduko hainbat kideren artean. Alderdiei ere ez zien onura handirik ekarri "aliantza" hark, ikusi dugunez, ez zuen-eta hauteskundeetan aldaketa handirik ekarri, eta, gainera, mugimenduarekin bat egiteagatik sobietarren aldekoak zirelako salaketei egin behar izan zieten aurre.

Aztertutako guztiagatik, esan genezake mugimendu bakezalea gizarte-mugimendu tradizionala dela, historian zehar bakezaletasunak agerpen ezberdinak izan dituela eta 1980ko hamarkadan, egoerak bultzatuta, jantzi berriz agertu zuela bere burua; mugimendu berrien baliabide eta metodoak hartu zituen, baina ez zen gizarte-mugimendu berri bat. Ez zuen, adibidez, gizarte berri batean parte hartzearen esperientzia eskaintzen, eta hori da GMBen ezaugarri nabarmenetako bat. 1980ko hamarkadan loratu zen, beraz, baina ez zen mugimendu homogenea izan. Hiru mugimendu bereiz ditzakegu, bakoitza bere berezitasunekin: AEBkoa, Mendebaldeko Europakoa eta Ekialdeko Europakoa. Ekialdekoa mugimendu ofiziala zen, eta independenteek jazarpena jasan zuten. Mendebaldekoa oso bestelakoa zen, heterogeneoagoa, eta mugitzeko baliabide eta aukera gehiago zituen. Esan bezala, AEBren eta Europaren artean ere baziren ezberdintasunak, eta Europaren eskariak gehiago ziren misilen ingurukoak. Ikusi dugunez, onerako eta txarrerako.

Bibliografia

- Defrasne, J. (1983): *Le Pacifisme*, Presses Universitaire de France.
- HELLER, A. (1985): *Sobre el Pacifismo*, Editorial Pablo Iglesias, 1985
- KLANDERMANS, B. (1991): *International Social movement research, Volumen 3, Peace movements in Western Europe and the Unites States*, Jai Press.
- MARDONES, J. M. (1996): "NMS y sociedad moderna", in J. M. Mardones (zuz.), *10 palabras clave sobre movimientos sociales*, Verbo Divino.
- MINNION, J. eta Bolsover, P. (1983): *The CND Story: The First 25 Years of CND in the Words of the People*, Allison & Busby.
- ROCHON, T. (ed) (1997): *Coalitions and political movements*, Lynne Rienner.
- RUIZ JIMENEZ, J. A. (2006): *El Desarme Nuclear Europeo (END) movimiento social y diplomacia civil*, Universidad de Granada.
- THOMPSON, E. P. (2002): *Nuestras libertades, nuestras vidas*, Crítica.
- YOUNG, N. (2000): "Peace Movements in History", in D. BARASH (ed.), *Approaches to Peace*, Oxford.

www.historiasiglo20.org/GLOS/querrafria.htm [2007/05/14]

www.portalplanetasedna.com.ar/querrafria.htm [2007/05/14]

http://es.wikipedia.org/wiki/Crisi_de_los_misiles_de_Cuba [2007/05/14]

www.mgar.net/cuba/misiles.htm [2007/05/14]

www.historiasiglo20.org/GLOS/euromisiles.htm [2007/05/14]